

BI GRAMATIKA BERRI

ZORIONEKO gera euskaldunok. Gure izkuntzaren zaletasuna eta irakaskintza geroago ta bizilagotzen ari da. Azken-aldi ontan, eta au aitatu nai degu gaur, bi gramatika berrik aberastu dute euskal-baratzea.

Alde batetik, J. B. Harinbat eta Blaise Pons, beneditar prailleak, 1950'garrenean, «Ezkila» taldearen zaipean argitaldu eta aldatu duten Ikasbide edo Metodoa degu. Aldaketa onetan asko irabazi du; ontarako gogoan izan bal-ditu alde askotako jakintsuak egin dizkieten oarrak. Aita Dihartze'k argitaldu duan ikasbide berri onek, bere eginean erakutsi ederra eman du, irakurtzeko erreza da ta erakusteko oso egokia eman zaigu. Belok'eko prailletegiak, izkuntza-legetan zorrotza ta euskeraren aberastasuna ikasleen aurrerapenerako eroso agertua eman digu liburu au.

Bigarren azaldu zaigun gramatika, Orixe ta Oyartzabal apaizak argitaldu digutena da. Orixe'k bere testamentu bezela lagatzen digu liburu ontan bere aztarna. «El Lenguaje Vasco» izeneko liburu onek bi tomatan ematen digu bere erakutsia. Bigarrenean, euskal-aditzaren eñiak era berri batean azaltzen dizkigu. Ez dira egileak gauden ontan lo artzekoak. Euskeraren galeratzat jotzen duten guzta kendu nai diote gure izkerari. Orixe'k dionez, eztago onartu bearrrik gerta dan guzta. Izkerak bere galeran izan dituan aldaketak lengo maillara ekarri bear dira. «Ez gera burrukan etsitzekoak —dio Orixe'k—, zenbait gramatika-zalek onartu nai lituzken aldaketak ontzat emanaz. Gure lan-itza, eustea da».

Gramatika burrukalari, bezaz, Orixe'ren izaerari dagokion bezela. Euskaltzale askorentzat burua berotzeko aukerakoa. Euskal-llburutegietaan bear-bearrekoa, noski. Bafña euskera ikasi nai dutenentzat, bidea erreztu bearra degu. Inguruan sortzen ari dan zaletasunari erantzuteko, beste ikasbide egokiak eta errezak asma bearrean gera. Inguruko izkuntza indartuak erabiltzen dituzten ikasbide ta Metodoak ikusi ta alien ariora jokatu bearko degu. Itz gutxiiko ikasbide argiak komeni zaizkigu euskeraren oinarriak erakusteko.

Egoki letozke —inglesak egiten dutenez—, itzegi urridun irakurgalake ere. Jakintza-aize gelegi gabe, liburu errezak eta merkeak argitalduaz, edozein ikasleren eskuetan jarriko genituzke gure izkeraren asierak.

Euskera askorentzat «Garaitu gabeko eñia» da oraindik. Ezin alditzke zokoratu, gure ikasle asko atzeratzen dituzten eragozpen eta zailtasun oiek? Euskaldun berri askok poz aundia izango luteke bideak erreztko ba-geitezke.



Naparroa-ren aurrerapen asmoak

NAPARROA'ko Diputazioan Huarte Goñi'tar Felix degu Lendakari-orde. Bere alkiaeren jabe egiterakoan, asmo bikalñak erakutsi ditu egin duan izketa-aldian:

«Naparroa goratu, aren Fueroak aldeztu, angu oitura ta lendiko legeak iraupen sendoan jarri —esan du Huarte jaunak-oiek dira Naparroa'ko Diputazioak aldi ontan bere gain artuko dituan egitekoak».

Asmo oietan, Naparroa'k gora-aldi bat asteko asmoa du. Ta gora-aldi orren lanak auek izango dira: lur legorretako nekazaritza etekin eta irabazpide obean jarri, urez gozatutako lurra ere obetu, ta bere lurra eroso datorkion industri berriak sortu; batez ere, lurra eta ganaduko eta basoak ematen duten aberastasunetik sortu ditezken ondorengo industriak jasotzea. Basoak aberastu ta larreak gozatu. Uriz ez duten lurretarako ur-aldapak ugaldu, lurra urez jantziago egin ditezten. Prantz'irako bideak zabaldu. Naparroa'ko Unibersidadea babestu, Nekazaritza-Irakaskintza sendotu lur-langilleak bere egitekoan jabetu ditezten.

Ononbesteko asmo zabal eta beroak txalotu bearrean gera. Naparroa'k ba-du ortarako bear dan gaitasuna ta aldea. Ta bere eskuan dituan eskubide bereziak ez ditu baztartzeko, ezpada lenez gain erabili ta indartzeko, Euskalerrri zarreko zatirik aundien orri bizi berria emanaz. Orrela jokatuaz, bere eskubideak ugalitzeko bidean jarriko da, ta etxean dituan erabaki bearrak eta gizar-tideak egunetik egunera erosoago jarriko zaizkio.

Orretarako, euskaldun guzion laguntza ta gaitasuna berearekin izango ditu. Asi bedi, ba, lenbailen gorako bide ortan.

BEARREZKO GAURKOTASUNA

J. SAN MARTIN

Alde batetik euskal literatura sariketen otsa somatzen det, ta bestetik, Santamaria jaunaren *Bixiru* arrabak irakurritu, utsean ote gabiltzaten.

Irakurri berri det Arestiren *Herri* eta *Herri* poema. Ain zuzen ere, egilearen eskariz, itzaurra egin diot, laster argitaratuko dan liburu oni. Ta, egia esan, ohore bat izan da nerretzat.

Liburu ohea izan zezakean, baña ezta lotsarik beste izkuntzetakoan aurrean. Batez ere, gaurkotasunetz dagoalako. Arestiren poema onek, arnasa berriak dakartzki izkuntza zarrari. Ta, ori ezta gutxi.

Bertsolariak edo izan ezik, gure literaturan, bestelako gaietan atzeratuak gabiltza. Iru edo lau poeta eta pare bat nobelagile ta artikulua idazle bakarrrik libratzen dira. Ta, ala ere, bada bazterretan sariketa otsa. Baña, Jainkoak libratuko al nau juraduko izatetik. Ezta penitentzia makala. Inoiz ez det orrenbeste nobela txar alkarren ondoren irakurri, eta ez irakurriko ere.

Okerrena da, maiz, gaiak on txamar tajarutz etortzen dirala; baña gatza ta piperez gañera, gauzak zuzenki, bixkortasunez, adierazteko moldea da falta zuten. Au da, esate baterako, ideak itz gutxitan ematea. Dotoretu naiak sarri ideak estaltzen ditu, irakurgaia aspergarri ez-ezik, nekegarri egiteko.

Joan zan mendeko literaturan, izkuntzaren dotoretasuna askozaz gelago begrituzten zailon, baña orain ez. Orain azkartasuna ta bizitasuna dira nagusi. Labor eta zorrotz ideak ezarri. Adibidez, lengo bertsolariak amabost edo ogei bertsu egiten zituzten idea bati buruz edo gauza bati buruz, eta oraingoko iru edo lau bertsotara errenditzen dute edozer gai. Ideak du garrantzi geiago, ta bertsu batean eman lezakean ideari, zergaitik egin lau bertsu?

Bizi molde azkarragoan gaude eta legez beartzen gaitu bide orretara.

Baña atzeratu xamar gabiltza idazle geienok. Beste esemplu bat degu, pelota. Aintzinako pelotariak, atzetik atzera jokatzen zuten, eta oraingoa txokoa arkitzen dute beren jokoaeren saltza nagusia, alkarren albidadeak bizkortuz.

Denborak dira orrela. Lege bat da munduaren eboluzioan. Erri guztiak arripuzten dituan legea da ori, bizitza azkarrago baten semeak gerailako. Guk, bertsolarietan eta pelotarietan egin degun aurrerapena, eboluzioa besterik ezta. Ori egin dute beste erri aurreratuak ere, beren literaturan.

Ta, orrek ezta esan nai lengoak baño oreak izatea danik. Ez, baizik, gaurkoak. Era orretan, erdel litteatura, Pio Barojak astindu zuen, laburki bezin zuzenki arira joanaz.

Orregaitik, ari danak, zintzoki jokatze, nun ari dan jakin bear du. Ezta bakarrrik, esaten dan bezela, poeta izateko jaio egin bear dala.



Jakina barnetikako sentipenak ere bear dirala, baña ikasi bearra ere bada. Biak alkarri lotuta bakarrrik etorri ditezke sorketa berriak. Lizardi ongi zekian bezela. Arnasa berriak emanaz asaba zaarren baratzari. Ori ez al zan, bere:

Elizardi, poeta

Zer esan genezake Lizardi? Nola laudatuko dugu haren poetatasuna? Nola hitzak eraman genezake aho-ara, haren poesia sakon eta gorenago bere hedadura zehatzean jartzeko? Hemen ezer esaten baldin badugu, uste dugu gure esaker gure Lizardi txikitu eta zikindu beste etzuela egiten.

Lizardi ezta esplikatzen. Lizardi konprenitu egiten da. Egun batean gizon eskolatuak etorriko dira, eta gorputz edo hilotz ustel balitz bezela, autopsia zehatz bat egiteko asmoa ekarriko dute. Filologuak, eskolagizonak, linguista, hizkuntzaren aztertzaileak, gramatikoa... hoek, gizon jakintsu guzti hoek, hizkuntza bizia eta eskritorearen etsiak dira. Gure hegalaq moztuzten dituzte. Haien artzietatik ihes egin behar dugu, honela gure ibiltaldia luzeagoa izan dadin. Eskritorearen eta herriaren artean komunio batek egon behar du. Gramatikoak eta filologuak komunio hori zikintzen dute.

Danteren komedia hartzen dut esku artean, eta haren italiano zaharra erabiltzen dut espain artean. Hitzartean eta adieraren artean, espirituzko melodia bat formazten zait barrenean; baina gero Danteren gainean hainbeste saio eta hainbeste estudio egin dela pentsatzen dut, eta hilotz ustel baten aurrean aurkitzen naitzela sentitzen dut. Haren gorputza hil egin dute gani-betel-kolpeka, baina haren espiritua atzearen hasnasetan dago bizirik, melodia atsegiri batean hedatzen da durundioz arimarik arima. Baina gizonok gorputzezkoak gara, eta poesiaren gorputza behar dugu.

Horregaitzekt Lizardiaren gainean ezer esanen. Ezta haren gainean ezer idatziko. Baina laudorio hau

jinitzen dudanean, haren Urte-giroak eskuan harturik, Lizardi irakurriko dut. Eta ariman lehen esandako melodia atsegiri hura formatuko zait.

Eta pentsatuko dut. Pentsatuko dut Lizardik urrezko orri bat eskribitu zuela euskal literaturan, gutzirik ederrena, gutzirik dizdiratsuna. Haren izena munduko abant-goardian aurkitzen da: Cesar, Nicolas, Pablo, Louis, Gabriel, Nazim, Mikail Vitezslav... eta Xabier. Lehengo egunean hala esaten zidan Bladi Oterok. Eta harek badu zergatik jakin.

Lizardi gure artean bizi da, gurekin bizi da. Gure ariman, gure izaeran, gure gaitzietan hartzen du parte. Gizonak egunero arrazoiaren alde egiten duen burrukaldian, lagun indartsu bat eta Okerbideak txarki traxtzen nauean haren abaropean ezkutatzen naiz. Haurtzari alimentatu bat ikusten dudanean, bide etzerteko belar gizenaren azpian hartzen dut babesa. Nire arima degoer gaizto batek hartzen duenean, amonaren hiletaz gogoratzen naiz. Lizardi nirea da, nire esku biak, nire poesia eta nire herria nireak diren bezela. Gizarteko komunio batean.

Baina egun batean, badakit, filologo bat etorriko da eta Lizardiaren poesia atzertuko du puntatik ondoragino. Lizardiaren poesiaren gorputza hilen du gamibetkolpeka. Haren espiritua ezta ukituko ere, zergatik... nola kometatuko dute filologuak poesiarekin? Baina niri, Lizardi kenduko dit beso artetik. Orduan ezna pagadiaren freskura atsedanean etzanen. Egun haretan nire bakartadea haundiago izanen da. Egun haretan birao bat esan beharko dut.

GABRIEL ARESTI